



TXIRRITXOLA

5. ZENBAKIA 1992.EKO ABENDUA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

**Euskara bihotzean baina erdara espainean
Gaur hitza eman bihar haizeak eraman**

San Pelayo” Bazelizari buruzkoak

Hauzoa izatez, 1.927. urtean, Bermeoko eremuetatik etendu eta Bakiokoe-tara igaro zan.

“San Pelayo”-ko bazelizaren kondaira, “San Juan de Gaztelugatze”-ko kondairari estu lotuta dago. Monastegi-gaztelu honen barriak gitxienez 1.053. urtetik datorkiguz. Orduan “San Juan de la Peña de Gate-lugache” moduan agertzen zan dokumentuetan. Baseliz honek ordea, ez eban baldintza egokienak batzen elizkideen erosotasunera, gatxa zalako bertara heltzea; honen ondorioz, beste bat eraikitzeke erabakia hartzen da: “San Pelayo”koa.

San Pelayo martiriaren zaletasuna, oso zabaldua egoan Erdi Aroan. Jatorriz, mozarabeen martiria zan, 925 urtean Kordoba hirian hil ebena. Lekaide mozarabeak zabaldu eben gure lurraldeetatik, batez be Arabatik. Bizkaian eta Gipuzkoan ordez, San Pelayo-renganako dagoen jokerea, Santiagoko bidearekin lotuta dago.

Adituek esaten dabenez, herri erromaniko edo “románico rural” tankerako ezaugarri argiak ditu, eta Zumetxagako “San Miguel” basilizarekin zerikusi handia dauka. Antza denez, egile talde batek eraiki eban baseliz biak XII gizaldiko bigarren erdian.



*Gaur, zail zaizun aitzakian,
euskara utzi eta, nahita,
erdarara duzu jo.*

*Bihar zailago izango zaizu,
eta errazago utziko duzu euskara,
eta nahiagoko duzu erdaraz egin.*

*Eta etzi, hala nahita ere,
ezingo duzu euskaraz egin,
euskarak ez bait zaitu ezagutuko,
zugandik ihes egina izango bait duzu ordurako...*

*Baztertu duzunak
baztertuko zaitu:
edari biziegia da euskara
edozein ontzitan alferrik galtzeko
Artze*

Bakioko Abesbatzak Uztaritzen abestu zuen

Ustaritzeko Abesbatzarekin trukaketa kultural bat egiteko asmoz, bidai bat prestatu, eta lapurdiko herri eder honetara joan ginan Urriaren 24an.

Jakingo dozuenez, Ustaritz aintzina, Lapurdiko hiriburua izan zan. XII gizaldian Lapurdiko bizkondea, «Ricardo Corazon de Leon»-ek Bayonatik kanporatu ebanean, Ustaritzen babestu behar izan zan eta gaztelu bat eraiki. Aurrerago gaztelu hau, Biltzarraren egoitza izango zan eta gaur egun Udaletxea.

XIX. gizaldian, Ameriketatik etorritako indianoak berbiztu egin eben hiria, eta kutxu exotiko batez jantzi ere.

Nive de Uztaritz inguratzen danan ibaia, bere paisaia oraindik gehiago edertuz.

Esan beharrekoa da, eguraldiak ez euskula inguru hau gozatzen askorik lagundu, hotza eta ura izan geunduzan bidailagunak eta. Baina ain ezan zan beroa euki gen-



duan harrera ze, ahaztu egin jakuzan besteak.

Bertako eleizan abestu geunduzan arrakasta handiz. Ekitaldia amaitu eta gero, afari gozo bat eskeini euskuen eta haren ostean, lagungiro zoragarri bat sortu zan.

Makina bat barre, berba eta kanta ta gero, etxera itzuli ginan, barrero elkar ikusteko gogoz.

Hori Udaberri azkenetan izango da. Ea animatzen zareen eta «Lapurarrak Abesbatza» entzutera zatozen.

Itxas -Alde dantza taldea Errusiara datorren urtean

Irailako oporraldia amaitu eta, beste urte baten gehiago, Itxas-Alde aurrera doa dantza entsaioak jarreituz, 1.993.eko ekitaldiak prestatzeko.

Ondo dakizuenez, errusialdeko uri handi batera joateko gara (Voronez hirira) datorren udan. Pasatu dan udan, hemen izan doguz gure artean, Bakion, herrialde horretako talde folkloriko garrantzitsua, «Raduga» izenekoa. Halan da ze, geu gara eurengana joan behar dogunok oraingoan.

Itxas-Alde taldearen ekitaldi maila altzatzeko edo aberasteko, dantza-entsaioak luzatzea erabaki dogu aurtentzen, batez be, dantzari nagusientzat. Beraz, batetik, dantzak osotu eta hobetu gura doguz, baina baita ere, errepertorioa zabaldu dantzak berriekaz: Donostiako dantzak, Aretxabaleta, Iribas, Sangotzakoak eta Arratiako dantzekaz esate

baterako. Besterik, gura geunke musikari berriak sortu eta musika tresna berriaz ornitu gure dantzaldiak, beti aurrera jo nahirik, gure folklorean sail guztiak osotu gura geneukez. Helburu hau lortzeko asmotan gabiltza ikastaroetara jo ta ke aurtengo neguan.

Argitaraldi hau aprobetxatu gura dogu, aurrekoaz gain ondorengoa azaltzeko: Bakiotar edo ingurukorik balego musika tresnaren bat jotzen dualarik edo ikasten hasi dala eta gura belegu gure dantza saioetan partehartu, jakin erazi gura deusagu, Itxas-Alde taldearen ateak zabalik dagozala. Jarraian zehasten deutseguz ensaio-orduak: barikuetan arratsaldeko 8,30etan, zapatuetan eguerdiko 12etan eta arratsaldeko 4,30etan, z Patronatoko eskola zaharretan izango gaituzue.




Bakioko Kirol Taldea 1992-93

• **HAURTENGO DENBORALDIAN TALDE BERRI BAT KADETE MAILAN.** Denboraldi honetan, oinarrizko futboleko ka-teak falta zuen eslaboia jarritzea lortu dugu. Eslaboi hau, kadete tal-dea da. Honela igaz infantil maila utzi egin behar zuten mutilek eta datorren urtean mailaz pasatuko direnak, kadete mailan izango do-guz, batzuek haurten eta denak ba-tera datorren denboraldian. Maila honen entrenatzailea Patxi Oregi bilbotarra da eta taldearen babes-lea ELGEZABAL LAGUN ELKAR-TEA.

• **ALEBINAK ETA INFANTILAK PUNTA PUN-TUAN SAILKAPEN NAGUSIAN.** Alebinak, igaz egin zuten denboraldi borobila gaintzeko bidean dabilta Jose-ba Markaidaren eskutik. Gaur arte lehenengo postuan daude partidu guztiak irabaziz. Babeslea ALQUI-LERES MARKAIDA da. Iñaki Imat-zek zuzentzen duen talde infantila ere aurrean dabil sailkapenean eta jokoz ona eskainiz gehientean. Ba-beslea TRANSALCO da.

• **LEHENENGO EKIPOAN ENTRENATZAILE BERRIA.** Urtero bezala, jokalaria bat-zuk maila haundiagoko taldeetara joan zaiguz eta berriak bilatu beha-rra egon da. Hala ere talde nahiko ona egitea lortu dogu eta nahiz eta denboraldian hasiera ez izan beste bi urtetako hain ona, askenean, le-henengo bi postuan barruan egote-ko ametsa daukagu. Talde hau zu-zentzen duen entrenatzailea, Jai-me Ruiz, da. Sondikarra honek erregionaleko hainbat talde zuzen-du ditu. Esan behar ere, aurreko bi urtetan, hainbat eta hainbat lan Bakio K.T.ren alde egindako Boni, Barakaldora joan zaigula bigarren entrenatzaile bezala. Lehenengo taldearen babeslea CAFES EL ABRA.



• **JOAN DEN ABUZZUAN, NAZIOARTEKO FUTBOLA, ZUBIAUR ZELAIAN.** Joan den udan, Abuztuan, Nazioarteko fut-bol talde bat Bakiora ekartzea lortu genuen, TIRANAKO PARTIZAN. Giro ona, gende asko eta partiduan emaitza, bi eta bat Albaniarran alde Bakioaren aurka jokaturako partidu honetan. Oso pozik eta Bakio oroi-men ederra eraman zutela idatzi digute Albaniatik eskerrak emanez.

• **BERMIO C.F. II CAFES EL ABRA TXA-PELKETAKO IRABAZLEA.** Abuztuan, ur-tero bezal, Bakio K.Tk bigarren CA-FES EL ABRA txapelketa antolatatu zuen. Partaideak, Bakio, Mungia eta Bermio izan ziren. Bermio biga-rreren aldiz jarraian genuen irabazle, Mungiarri lau eta hiru irabaziz. Joka-laririk onennantzako saria Raul mungiarrik lortu zuen. Txapelketa honen laguntzaile berezia BAKIO-KO UDALA izan genuen.

Hau da oraingoz gure balantzea eta bakarrik geratzen zaigu gure laguntzaile guztiak eskertzea TXI-RRITXOLA aldizkari honen bidez.

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON

ALAITASUNA P.T.

Oraingo honetan b gauza ditugu eskutartean: Alde batetik, eskupilo-ta eskola dala eta, aurrean Diputa-zioen eskolarteko kirolean parterik ez hartzea erabakirik, Mungia eta Bermeogaz jarri gara kontaktuan heuren umeen kontra bere abilezia ta indarra neur ditzaten. Bestetik, inoiz eskupilota eskolan ibilitakoen-tzat ezezik, helsuen artea, gai di-renekaz edo atrebitzen direnekaz batera «Herriko 1go eskupilota txapelketa» antolatzea erabaki genuen. Lehenengo ihardunaldia igaro ondoren, animazio faltarik ez zan izan pelotalekuan, jokaldi ederrak ikusteko aukera izan genituelarik hara hurbildutakoak.

Emaitzak hauek izan ziren: Ibon/Joakin 20 - Zorroza/Busturia 22, Imanol/Zigor 13 - Larrene Altxaz 22. Nahiz eta Ibon eta Joakin parti-duan gidari ibili hainbeste denbo-ran, 8-9 tantuko aldea lortuz, parti-dua 22 tantu egin arte ez dela amaitzen ondo jakin erazi ziguten, Zorro-zak eta Busturiak, apurka apurka apurka arerioei hurbiltzen hasi zit-zaienean, garaipena lortuz. Bigarren partiduari dagokionez, Imanolek es-kupilota zer den ondo jakin arren, asupoak ez zion parkatu, partidua Larrene eta Altxakoen alde bideratu zen.

Amaitu aurretik pare bat gauza azpimarratu nahi genuke: Goian ai-patutako partiduak asteazkeneko (egustena) eta Igandero (domeka) ikusteko aukera duzuela. Urtarrilean, urtero bezala, eskualdeko VIII. Go-mazko pelota Txapelketa martxan hasiko dela. Txapelketa hau, daki-zuenez, bi kategoritan garatuko da. Beraz, badakizue pelota ta pala hartu eta frontoira entrenetan.

Txokotik-Errebotera

1- Zenbat zenbaki ditu Bakioko frontoia?

2- Sakea egiten dugunean, pilo-tak sakeko marra jotzen badu, ona ala txarra da? Txapan jotxen badu? Txapan jotzen badu baina zaratarik egin ez? Atzeko ormara jo ezker?

3- Profesionaletan, zenbatera izaten da eskpilotako partidu bat?

4- Zeintzuk dira Alaitasuna pilota taldeak 1.992. urtean zehar antola-turiko txapelketak?

Emaitzikiok erantzun hauek Alai-tasunako edozein kideari eta asma-tzaileen artean opari polit bat zo-zketatuko dugu

Herriko Tabernariekin elkarrizketa

«Bakio berpizteko jende gehiago etorri behar du bizitzera»

Txirritxola aldizkariak oraingoan gure herriko tabernari edo hosteleruengana hurbildu da beraien erizpide edo arazo jakitekotan. Denengana joatea ezinezkoa egin zaigunez, hiruhana

jo dugu bereziki. Hementxe ditugu beraz, Gotzon "Gotzon Jatetxe"koa, Jon "Julian Taberna"koa eta Kontxi "Ur-Zabal Kafetegia"koarekin egin genuen elkarrizketa

Galdera: Nola edo Zergaitik hartu zenuten zuek ogibide hau?

Gotzon: Gerra ostien nire familiakoak hartu zeurien tabernie eta gero neuk ere horretan segidu nuen, kanpoan zeozer ikasita ostien.

Jon: Neuri ere familiatik datozt ogibide hau.

Kontxi: Nik, solteratan, tabernan egin nuen lan eta gero familia aurrera atarateko hartu nuen tabernie.

G.: Asko hitzegiten da ogibide/hontaz bazter guztietan. Zer uste duzue, benetan negozio bat dela? Edo izan dala?

E.: Hamar urtetik honantz ez da negozio bat. Bizitzeko beste ateratzen dugu bakar bakarrik. Eta dirue errez atarateko inoiz be ez da izan, lan asko eta ordu asko sartuta baino. Asoziazio bat egin beharko genuke danon artien geure burue defendiduteko.

G.: Famili bezala eramaten duzue gehienbat, zergai-

tik hori? Bestela ez al da errentablea?

E.: Bai, bai, familiakoak lan eginda, bestela ez dau zereginik. Sueldoak, seguruak eta dena pagetako ez dau emoten taberniek.

G.: Eta gaur egun hainbeste hitzegiten den krisi

E.: Hori ez da Bakiokoa bakarrik, hori generala da. Ba dauz tabernak 3 eta 4 milleko kajak egiten dabezenak bakarrik. Eta sarritan, biazanteak esaten dabelez fakture txiki txikiak ere ezin pageu. Gu ondiño horretara ezkara aillegeu baina ez dakigu zer ikusi behar dogun.

G.: Ba al du soluziorik krisi horrek, ikusten al duzue urtenbiderik? Zelango medioekin?

E.: Bakion jente gehiau bizitzera etortzea lortu behar da. 4.000 edo 5.000 pertsonako herri bat balitz, beste bizitzeko era bat egongo leitzike. Baina horretarako herriak berak ere gehiago ofrezidu behar dau. Eta lehenegoetara goaz: geuk be alkartu egin behar dogu, geure problemak azaldu, publizidade gehiago egin kanpoko gentiek Bakio ezatu deian.

G.: Ba al daukate zereginik instituzioek arlo honetan, Udaletxeak adibidez?

E.: Bai, instituzioak, eta

Herriak gehiago ofrezidu behar dau jentia hona etortzeko bizitzera. Lan honetan udaletxeak paper garrantzitsu bat jokatu behar du. Industriaren bat ere bultzatu beharko luke

ekonomikoari buruz, zer? Zuek nabaritzen duzue?

E.: Bai, krisia igerrian dago: gitxiau saldu, konsumo gitxiau, lehen kafie eta kopie hartzen zuenak gaur kafie bakarrik hartzen dau, eta jente askok tabernara joatieri itxi ere egin dautso. Udien be lehengo aldien beherakada handia dago.

G.: Eta Bakion zeren eraginez dela krisi hori uste duzue?

Herriko Tabernariekin elkarrizketa

batez ere Udaletxeak badauko zereginik arlo honetan eta beste batzuetan ere. Herrian jente gehiau lotzietako serbitzu gehiau ofertatu behar du; industriaren bat ere bultzatu beharko luke eta bizimodu erreztu: etxe-bizitza merkeagoak. Bestela jentia lo egiten bakarrik dator Bakiora eta honela bagoaz jubilatuen herria edo "pueblo dormitorio" izango da.

G.: Hainbeste inbertsio suposatzen badu beraien aldetik, merezi duela uste duzue sektore hau aurrera ateratzeko?

E.: Bai, meresi dau, ez guretzako bakarrik ze azken batean herri hau ezta ez baserritarra ez kalekoa. Inon tzat be estau urtenbiderik.

G.: Bakio garestia dela esaten dute gehienek. Zelako argumentuak dituzue hau defendatzeko?

E.: Beste leku batzuk baino karuaua ezta. Bestela joan zaitezte Mungiara, Bilbora edo edonora. Pasetan dana da ba dende esatebaterako, ogerleko bat atara gure badeurie derrigorez supermerkatu handiek baino karuau ipini behar. Eta lehengoetara goaz, jente gehiau behar da berton bizitzen

eta komunikazioak be hobeak ze herri hau guztiz baztertuta dago arlo horretan. Hori be Udaletxearen lana da: komu-



nikazio gehiau eta merkeagoak ipini, bai estudianteentzat eta baita biarran joan behar deuenarentzat. Badauz subentzioak Diputaziñotik gauza horrek meioratzeko.

G.: Negua luzea dela diozue sarritan. Nola txikitu negu hori, nola ez bizi udaren pentuan?

E.: Negue luzie da bai, benetan, gastuek pagetako be ez da ataraten neguan. Horrexegaitik da derrigorezkoa urte guztiko herri bat

Komunikazio gehiau eta merkeagoak ipini behar dira, bai estudianteentzat eta bai biarran joan behar deunarentzat

izatea.

G.: Zuen dispozizioa eskertuz ez genuke elkarrizketa hau guretzat garrantzitsua

den galdera bat egin gabe bukatu: Prest egongo zinatekete gurekin batera euskalduntze kanpaina bat aurrera eramateko?

E.: Euskera gitxi egiten da, bai, eta horren errue geuk deku, ze taberna barrukoak gara lehenengoak erderaz egiten, ze pentsetan dogu datozenak denak direla erdaldunak.

Bi, egin beharko da ahalegina ze umiek be lehen baino gitxiu egiten deurie. Hor katalanak ejenplue ematen deuskue: lehenengo beti euskeraz eta gero ez dakienari bakarrik erderaz. Bai kartelak imini, prezioak, kartak eta guzti hori egin leike.

Eskerrikasko ba eta aurre-rago ikusiko dugu elkar kanpaina horretan

Euskeraren eguna



Euskeraren jaia denon eguna

Argazkian ikus dezakegun bezala, nahiko lan eskatu zigun jai hori antolatzeak. Denetariko eritziak jaso ahal izan ditugu egun horri buruz: Badaude diotenak egun alaitsua izan zela batez ere bazkari eta bazkalondoko giroa aipatuz.

Kalejira ere aipagarria iruditzen zaie beste batzuei. Baina umeek bakarrik ahal daukate zerresana euskeraz aldarrikatzeko orduan?

Izan ziren baita herriko zenbait taldeen ekintza txukunak, borondatez eskeinitakoak.

Euskera batzordeak, dena dela, baditu zenbait kezka:

Lehenengo eta behin uste du Udaletxea bera izan behar dela euskeraren bultzatzaile. Ez genuen ikusi ez

alkaterik ez zinegotzi garrantzitsurik euskeraren bandera aurretik eta gogor astintzen.

Euskera Batzordeak euskal jai baten ospakizuna, urte neketsu eta euskal jorratzaile baten ondoren hobeto ikusiko luke. Beti ikusten dugu euskerazko lana gutxi batzuen eskuetan. Baina euskerak, hiltorian dagoenak, esku asko behar ditu flotera irtezeko.

Deialdi bat egiteko aprobetxatuz bukatuko dugu oaingo gure buruhauste handienetarikoa:

Euskeraz lan egin nahi duzuenok etor zaitezte Euskera Batzordera.

Euskera maite duzuenok bizi zaitezte euskeraz.

Erantzun bat eman diezaiogun euskeraren omenez egiten den edozein ekintzari

Euskeraren eguna urte guztian

Bai, bai, bai, ezin dugu egun batez itzi, egunero bizi behar dugu euskeraz.

Datorren urtean ospatuko dugu Bakion euskeraz bizi garela!

Danon artien lortu behar dugu hori.

Batzuk ez dugu euskeraz ikasi baina bai bizi eta euskaldunak gara. Gure herriko umeak nahiz eta euskera ikasi eta euskeraz ikasi bizi dira euskeraz...?

Eskolatik kanpoko lana da gurea, guraso, amonaitita, izeko-osaba... bizi dugunok erabli, dakiguna irakatziz, ostien akabo.

Jakina, urtekoa lortzeko egunero ekin behar jako.

AURRERA EUSKARAREN EGUNA.

“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik”

Hau da idazleak diona. Eta hau da hain zuzen ere, nik Euskeraren egunean ikusi neban akats bakarra. Egundorretan ere, gure arteko hizkuntza nagusia erdera izan zela uste dot. Eta zoritzarrez, gure herrian egunero gertatzen dan errealitate triste haur da. Euskeraren egunean erdaldunik nahiko egozen. Baina hauek ez eben errurik. Errua euskera dakigunona da. Ze, Euskeraren egunean ere, euskaldunen artean ere, erdera euskera baino gehiago ez ahal zen erabiltzen eta entzuten?

Bakion bada non jan

Txirritxolaren ale honegaz emoten dautsogu hasera sukaldaritza sail txiki honi. Berton elkarrizketatuko doguz Bakioko sukaldariak, bakoitzari errezeta bana eskatuko dautsogularik. Gaurkoan,

euskara ikasten ari garen alfabetatze taldekoak "Joshe-Mari" taberna txukunera abiatu eta bertako sukaldari den Gregori Errenteriagaz egin dugu berba; on Egin dagizuela!

Galdera: Noiz hasi zinen sukaldaritzan?

Erantzuna: Ezkondu nintzenean... Direz orain 43 urte- tabernak berak dituenak- eta ordutik hona lotu barik, lehen bakazinerik ez zan egoten eta, ez bakazio ez ezebez.

G.: Zelan eta norengandik ikasi zenduan?

E.: Ikasi ba holan, gaur ondo eta bihar txarto... gero aiteginarraba eduki nuen kozineru, harek irakatsi eustan apur bat- Bilbon eukan jantokia- ta galdetuaz, ba gaur ondo urtetan ba dau bien, ezpabere urrengoatan hobeto; eskolara joan naizelako ez. Batzutan liburuekaz, besteetan liburu barik. Era pastelerien kasuen aitagarrebak emandako errezetakaz; gainera pastelerie gustosoago, errezago egiten dot.

G.: Zer deritzozu gizonak sukaldari izateari?

E.: Gizona gehiago da enbrea baino, gehiago aguantaten dau beroa, indarra gehiago eskuetan... gustua be ba dauka. Nire aitagarreba primerako sukaldari eta erreposterua izan da, orain sukaldari dabilzan gazteak be asko gustaten jataz.

G.: Euskal sukaldaritza berriaz?

E.: Ba... gustoetarako dagoz gauzek. Nik gurago dot betikoa, baina ondo dago ze orain produkto gehiago bere ba dagoz, eta preparentan jakin beharra dago.

G.: Egurra, elektrikoa, edo butanoa, zer duzu gurago.

E.: Butanoa baina gainean plantxa daukot ipinita, plantxak bai okela eta bebai arrainaren zaporea hobeto gordetzen dauz, eta jendeak gehiago eskatzen dauz.

G.: Jakiak noizkoak eta nongoak?

E.: Barazkiak beti sasoiakoak, eta ahal dela bertakoak Bakiokoak. Diferentzia itzela dau, bertokoak kanpokoak baino askoz hobek direz. Patatak esaterako... eta begakoak barik alturekoak ba direz ondino gozoago. Zain-zuriak berebai gustu gehiago, mingotzago eta gozoa kanpokoak baino... hainbat kilo saldu

dodaz aurton!

G.: "Gulas del Norte" ala txitxardinak?

E.: "Gulas..." emotea baino, gurago dot patata tortila ipintzea... baina nork erosi gaur egun egiazko txitxardinak?

G.: Zure platerrik preziatuena?

E.: "Menestra", "Panatxe" menetrak behar handia dauka. Barazkiak banan bana egosi behar dezuz, bakoitza bere aldetik bainak (lekak), alkatxofak (orburuak), Coles de bruselas (bruselasko azak), Penkak, ilarrak, babak... Lehenengo ilarrak, babak eta lekak albarda barik azpira bota, ostean alkatxofak, "coles de bruselas" albardata gainera bota.

Azkenik saltsa espainola gaintik isuri eta kito, jateko prest.

G.: Eta azkena, mikroondas, spress-lapikoa...?

E.: Mikroondas bategaz zer egingo dozu ba? Batzuk milagroak egiten dabèz, nik ez dot milagrorik egiten. Ez dakit zer egin behar deurela, ez dakit nork... sagarrik erre... nik ez, nik labera sartzen dodaz. Ba dakizu zertarako den ona? Goizetan kafesnea berotzeko, horretarako bai.

Eta halantze, gustora oso urten dogu tabernatik, laster itzultzeko asmotan, entzundakoak ikusi eta dastatzeko gogoz.

Hiztegitxoa

Kozineru	Sukaldari
Jantoki	Restaurant
Enbrea	Emakumea
Pasteleria	Gozogintza
Jakiak	Okela, Arrainak, barazkiak
Zainzuriak	Esparragos
Txitxardinak	Angulas

Bakioko Alfabetatze taldea

Txistea



Bakioko gabon kanta

Zer gertatzen ete da Belengo herrian soinu eta dantza dabiltz gauaren erdian.

Da haruntz da honuntz lasterka artzaiak mendian alkar bilatzen dira ahañlegin guztiaz.

Arin arin kristauak arin Belenera Jesus adoratzera ahal den lasterren.

Bibolinak, txistuak, danbolin soinuak artzainak jotzen dabiltz kontentuz ta pozaz kontentu ta pozaz.

Hiztegia

